



6012

*Narratiba, 109*

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2018ko otsailean*

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Karlos Linazasoro

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-215-5

L. G.: SS-1221/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Karlos Linazasoro

6012



–Tren bat errailetatik irten da, presidente.

Udal Batzordeko presidenteak korridoreko horma-erlojuari begiratu zion: gauerdiko ordu batak eta hogezi ziren. Emazteari eman zion deiaren berri eta, korrika eta presaka jantzirik, kalera jo zuen ziztu batean.

Bakarrik egin zuen geltokirainoko bidea; taxi bat zegoen geltokian, baina ez zitzaion hura hartzerik bururatu. Giro epel xamarra zegoen, udaberriak loretan zeuzkan jada aranondo ederrak.

Tren-geltokian bi udaltzain zeuzkan zain, larri eta urduri.

–Izugarrizkoa gertatu da! –esan zuen bietako batek, eta presidenteari lagundu zioten trena deskarrilatu zen lekuraino.

Geltokiaren eta geralekuaren artean zegoen, bieta-  
tik kasik distantzia berera, Anbulatorioaren parean. Mer-  
kantzia tren bat zen, 6012 zenbakiduna, eta bagoiak  
errailetatik irtenda zeuden. Haietako bat zisterna bat  
zen.

RENFEko arduraduna azaldu zen orduantxe, es-  
kuargia pizturik, urrats luze baldarrak eginez.

–Gabon, jauna. Protokolo guztiak martxan jarriak  
dira.

–Zer dago zisterna horren barruan? –galdetu zuen  
presidenteak dardara arin batez.

–Ez dakit, jauna. Azidoa, gasa, ez dakit ziur, baina  
halako zerbait...

–Lekuko batek adierazi digunez, trena sekulako  
abiaduran zetorren bihurgunea hartu duenean. Hortxe  
zegoen, etxeko leihoan, zigarro bat erretzen, eta dena  
ikusi omen du –esan zuen udaltzain batek.

–Denak abisatuta daude: suhiltzaileak, Guardia  
Zibila, Hiriburuko erretena... –jarraitu zuen RENFEko  
arduradunak burdina anabasa hari begira.

–Zer krixto baina, abiada horretan! Eta zisterna  
horrek zer darama barruan? –galdetu zuen presidenteak  
berriro ere, oihuka.

Ordu erdiren buruan, arduradun guztiak iritsi zi-  
ren geltokira: Guardia Zibila, hiriburuko suhiltzaileak,  
T.-ko udaltzainak, RENFEko arduradun nagusiak.

–Zure esanetara gaude, presidente –esan zion guardia zibilen tenienteak, eta orduan jabetu zen lehen aldiz herriko presidentea egoeraren larritasunaz eta zegokion ardura handiaz.

Presidentea, hainbeste jendez inguraturik, burdinazko txatar izugarri hura aurrean zuela, galduta sentitu zen, ezgai eta ahul.

–Lehen-lehenik, zisterna horrek zer garraiatzen duen jakin behar dugu –bota zuen ahots anonimo batek, ozen eta irmo.

Trenaren ibilbideko taloiak begiratu behar ziren horretarako eta, telefono-dei baten ondoren, jakin zuten zisternak azido zianhidrikoa garraiatzen zuela.

Jarraian, RENFEko ingeniari batek xehetasun teknikoak eman zituen:

–55 tona azido zianhidriko daramatza, %20ko urdisoluzioan. Kolorerik gabeko azido bat da, sukoia, lehergarria, toxikoa eta pozoitsua; dosi ttiki bat nahikoa litzateke sekulako triskantza eragiteko. Printzipioz, ez dago leherketa arriskurik; baina, ihes egingo balu... Beraz, egin behar den aurreneko gauza zisterna aztertzea da, ea arrakala, zartadura, zuloren bat baduen. Eta azidoa hartu behar zuen enpresara deitu behar dugu segituan. Haiak esango digute, inork baino hobeto, nola jokatu behar dugun.

–Ihes egingo balu, zer? –galdetu zuen presidentek ingeniariari begira.

–Herri osoa desagertuko litzateke, dudarik gabe.  
Gu denok.

Isiltasun une baten ondoren, suhiltzaile buruak hitz egin zuen:

–Ez dugu ikaratu behar. Taldeak eratu behar ditugu, lana koordinatu eta, batez ere, azkar ibili.

Presidenteak, denak bere hitzen zain zeudela jabetuta, guztien profesionaltasuna goraipatu zuen eta esker-rak eman zizkien hain egoera zailean lagun eta lankide zituelako.

–Geltokiko bulegotik bertatik koordinatuko dugu operazio guztia. Esan beharrik ez dago, konfiantza osoa daukat zuengan. Zuen eskuetan nago, zuen eskuetan dago T.-ren bizitza eta etorkizuna.

Hori esanik, geltokiko bulegora jo zuen.

Nahastua sentitzen zen, ikaratu. Egoera hark alde guztietatik gainditzen zuen. Hilabete ere ez oraindik T.-ko buruzagitza hartu zuela, demokrazia hasi berriko lehen Udal Burua, eta halako amesgaiztorik!

RENFEko ikuskariak mahaia atondu zion.

–Hemen daukazu telefonoa, jauna. Besterik behar baduzu, eskatu niri lasai. Kafe pixka bat egingo dut.

Mahaira eseri, eta burua baretzen saiatu zen. Borborka zeukan garuna, hotz izugarri bat sentitzen zuen bizkarrezurrean gora eta behera. Amorraturik zegoen, eta amorru hartan makinariarekin akordatu



zen, tren gidariarekin. Hari buruz galdetu zion ikuskariari.

–Klinikara eraman dute, zauri arin batzuk besterik ez zeuzkan, itxuraz. Guardia Zibilaren zaintzapean dago.

Telefonoa jaso zuen, atzera eskegi. Hartan zegoela, DYako eta Gurutze Gorriko boluntarioak sartu ziren bulego ttikira. Presidenteak istripuaren jakinaren gainean jarri zituen, labur eta xehetasun handirik gabe.

–Inguruko kale eta pasabide guztiak itxi behar dituzue. Inor ez dadila geltokira bertaratu. Arrisku handia dago.

–Halaxe egingo dugu, jauna. Baina jendea galdezka hasi da. Zisterna ikusi dute –esan zuen Gurutze Gorriko medikuak.

–Inork ez du ezer jakin behar. Kaosa litzateke. Zisterna hutsik dagoela esango diegu. Oraingoz, bederen –jarraitu zuen presidenteak.

–Ez dakit sinetsiko diguten, baina halaxe egingo dugu, jakina –bukatu zuen medikuak.

–Niri ongi iruditzen zait –esan zion ikuskariak, denak irten eta bakarrik gelditu zirenean.

Kafe kikaratxo bat ekarri zion, bero-beroa.

Presidenteak, zutiturik, bulegoko leihotik begira egon zen tarte batez. Trenbide ondoko etxeetako argi guztiak piztuta zeuden. Jendea leihotetan. Trenak, han urrunean, uholde-aurreko piztia beldurgarri bat zirudien,

eraso egiteko prest. Laster hasiko ziren bizilagunen galderak, ea zer gertatu zen, ea arriskurik bazegoen. Mugimendu handia ikusten zuen kanpoan, jendea hara eta hona, eskuargiz lagundurik eta korrika, heriosuhar. Inpresio txarra egin zion hark guztiak, egoera hark denei gainezka egingo balie bezala sentitu zuen, hondamendi handiegia zela hura hain herri txikiarentzat.

Oraindik ez zekien ezer zisternaren egoerari buruz, eta une hartan huraxe zen inportanteena. Ingeniariengana hurbiltzea pentsatu zuen bat-batean, oldar gotor batek bultzaturik, baina ez zen bulegotik irten. Denbora beharko zuten beren lana ondo eta zuhurtasunez burutzeko, eta ez zen komeni enbarazurik sortzea, are gutxiago urduritasunik.

Atzera mahaira eseri, eta ohar batzuk idatzi zituen koadernotxo batean. Udaltzainen kaboa sartu zen orduan.

–Jauna, saiatu gara SOTIDErekin hitz egiten, azidoa jaso behar zuen enpresarekin, baina goizeko zortzietatik aurrera deitzeko esaten du erantzungailuak.

–Goizeko zortzietan! Oraintxe bertan behar dugu komunikazioa! Bertako zuzendaria, gerentea, arduradunen baten telefonoa lortu behar duzue segituan! Hitz egin Guardia Zibilarekin! Haien bitartez izango da modurik –erantzun zuen presidenteak, haserre.

Kaboa txintik esan gabe irten zen kalera.

Presidenteak, jarraian, agendatxo bat atera zuen berokiko poltsikotik. Zinegotzi guztien telefonoak zeuzkan han apuntatuta.

Goizeko hirurak laster.

Alderdiko bigarrenari deitu zion. Zer gertatu zen kontatu ondoren, zinegotzi guztiei deitzeko eta geltokira etortzeko agindu zion.

–Ordu erdiren buruan, denak hemen. Ea zer kristo egin behar dugun istripu alimaleko honekin!

T.-k hamazazpi udal batzarkide zituen, eta hogeimila biztanle inguru.

Pixkana-pixkana, zinegotzi guztiak iristen joan ziren: Alderdikoak, Ezkerzaleak, Sozialistak, Batasundarrak eta Karlistak. Denak ikaratuak, denak urduri. Presidenteak bulegora sarrarazi zituen eta, aurpegiera serioz, egoeraren berri eman zien.

–Bonba bat daukagu hor kanpoan, bonba atomiko txiki bat. Zisterna aztertzen ari dira oraindik, badi-rudi ez daukala lehertzeko arriskurik. Baina gauza segururik ez dago. Denak lanean ari gara.

Ondoren, presidentearen eta ikuskariaren atzetik, hamasei zinegotziak irten ziren nasara. Istripua ikustera eramán zituzten.

–Aurreko hiru bagoiek automobilgintzarako piezak garraiatzen zituzten, eta zisternak, berriz, SOTIDE enpresarako azido zianhidrikoa –azaldu zuen ikuskariak ilaun.